

PROGRAMA: EKIMEN EKINTZAILEEN SUSTAPENA 2025

Aholkularitza eta prestakuntza-ikastaroak

Xedea	Enpresa proiektuak sortu eta abian jartzeko aholkularitza.
Erakunde onuradunak	<ul style="list-style-type: none"> • Udal izaerako enplegua eta tokiko garapenerako zentroak. • Irabazi-asmorik gabeko fundazioak, elkarteak eta bestelako erakundeak. • Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateak. • Enpresa-kudeaketan gutxienez hiru urteko esperientzia dutela egiaztatu behar dute.
Diruz lagundu daitezkeen egitateak	Lehenengo fasea: enpresaren eta enpresa-kudeaketaren sarrera. Enpresa kudeaketari buruzko 30 orduko talde prestakuntza da. Prestakuntza modu presentzian, erdipresentzian edo telematikoa eman ahal izango da. Modu presentzian edo erdipresentzian emandako prestakuntzak taldekoa izan beharko du, gutxienez 8 sustatzailerekin eta gehienez 25 sustatzailerekin.
	Bigarren fasea: banakako aholkularitza, pertsona sustatzaile bakoitzeko 40 ordu, gehienez, negozio-plan zehatza egiteko. Aholkularitza gehienez 80 ordukoa izango da, baldin eta enpresa-transmisiora zuzentzen bada, 11. oinarrian ezarritako baldintzetan.
Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak	<ul style="list-style-type: none"> • Kanpoko prestakuntza-gastuak. • Diruz lagundutako ekintzetan parte hartu duten erakunde onuradunaren langileen barneko gastuak (prestakuntzari edo aholkularitzari lotuak). Diruz lagundutako ekintzan zuzenean parte hartu duen pertsonalaren soldatak eta gizarte-kargak baino ez dira sartuko.
Diru-laguntzaren zenbatekoa	Erakunde bakoitzari gehienez emango zaiona: 80.000,00 euro.
	Laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, honako kontzeptu hauek batuko dira: <ol style="list-style-type: none"> 1.500 euro biderkatu behar zaizkio 2023ko uztailaren 29tik 2024ko uztailaren 30era bitartean aholkatu eta abian jarri diren proiektuen kopuru osoari % 10 gehitzearen emaitza den zifrari. 3.000 euro biderkatu behar zaizkio 2023ko uztailaren 29tik 2024ko uztailaren 30era bitartean aholkatu eta gauzatu diren enpresa transmisio proiektuen kopuru osoari % 10 gehitzearen emaitza den zifrari.
Arautegia	Bizkaiko Foru Aldundiaren 1/2025 FORU DEKRETUA, urtarrilaren 9koa , Diru-laguntzak emateko, norgehiagoka araubidea, hainbanaketarekin, erabiliko da.
Epeak	Ekintzak egiteko epeak: Dirulaguntzaren xede diren ekintzak 2024ko uztailaren 31tik 2025eko uztailaren 30era bitartean egin beharko dira.
	Eskabideak aurkezteko epea eta modua <ul style="list-style-type: none"> • 2025eko urtarrilaren 15ean hasiko da, 09:00etan, eta 2025eko otsailaren 2an amaituko da, 13:30ean • Eskabideak Internet bidez aurkeztu beharko dira, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Bulego Birtuala erabiliz, 39/2015 Legearen 16. artikularekin bat. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikora sartu behar da Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko sailaren Bulego Birtuala aukeratu.